

*“Jendea ezagutzen ez delako gorrotatzen du elkar,
ez da elkar ezagutzen komunikatzen ez delako,
ez da elkar komunikatzen, ez diotelako komunikatzen uzten,
ez diote elkar komunikatzen uzten...”*

Malcolm-X



ZINE TXIROAREN ALDARRIKAPENA

Gaizki ulertuak argitu ditzagun: zine txiroak ez du ideiarik edo kalitate artistikorik gabeko zinea esan nahi.

1. Kontrakoa: Historiako desagertuek betiko galtzaileen bertsioaren monopolioa dugu. Haien estudioek, ekoizleek, efektu bereziek edo atrezzoek imajinatu ere ezin dituzten gauzak amestu, sentitu eta bizi izan ditugulako. Inoiz kontatu ezin izango dituzten historiak.
2. Haien globalizazioak zine txiroaren eta aberatsaren amildegia areagotzen du. Pentsamendu bakarraren eredia ezartzea suposatzen du. Nortasun kultural edo sozial osoen aniztasuna eta zilegitasuna sakrifikatzen dira.
3. Gaur egun, zinean iraultza teknologikoak, nortasuna galtzen duen egitasmo honi erresistentzia baliabide eraginkorrak ematen dizkio. Aukera tekniko berriak sendotzen ari dira. Bideo digitala eta ondoren 35 mm-tara zabaltzea ekoizpen zinematografikoaren kostuak murrizten ditu.
4. Honek, industriari modu zorrotzean lotutako arte honi zentzu elitista desorekatzean, lanbidearen demokratizazio mailakatu batean eragiten du.
5. Kostuen murrizte hau bizkortzea eta baliatzea inoiz zine ekoizpenean sarrera izan ez duten talde eta komunitateei zinematografian sartzeko suposatzen du.
6. Orduan agian haien kirtentze eta zitaltze proposamenari ihes egiteko aukera izango da. Estilo, ondare eta asmo aniztasunarengatik apustu eginez eta estatuen, multinazionalen edo ikuspegi txikigarrien ondare ez den arte batengatik lan eginez.
7. Hau gerta ez dadin, ikuskizunen eta denbora pasaren korporazioen menpe dagoen banaketa zinematografikoaren harresia suntsitu beharko da.
8. Gure izatearen alor guztiak militartzeko asmoarekin, kapitalak, zinearen bidez, eraikitzen duen bortizkeriaren kulturaren aurka borrokatu behar dugu. Haien ikus-entzunezkoen multinazionalak, beldurraren, mesfidantzaren, komunikazio ezaren, etsipenarekin eta gorrotoaren lantegiak dira.
9. Gure sentimenduetan, erlazioetan edo asmoetan haiek ezarritako kodeetat askatzea, zine txiroa ekoizten edo banatzen hasteko bideak sortzen ditugunean izango da posible.
10. Orduan, azkenean, zinea, basakeriaren arotik atera izango da. Gora behekoak.